

Urri



ANE LABAKA
MAYOZ
BERTSOLARIA

Erleak urri, eztia urri abarasketan. Koralezko arrezifeak urri itsaspean, eta mendietako glaziarrak, eta pagadiak, eta hariztiak. Baso sarriak urri, birika-oihan berdeak gero eta urriago. Idortu gabeko lurrak urri; idortzeaz. Goroldioa urri. Urmaelak, lakuak eta ibaiak urri. Izotza, ur edangarria urri. Haziak urri, mineralak urri. Garia, kakaoa urri. Koltana, kobrea, ikatza, litioa, nikela, petrolio, gas naturala urri. Balea urdinak, hartz polarrak, koalak, dordokak, pinginoak, otsoak urri. Tximeletak urri –ume garaiko oroitzapenetan orain baino askoz gehiago agertu ohi zaizkit beti–.

Herriko denda txikiak urri. Sasoian sa-soikoa urri, bertakoa urri. Baratzek gero eta urriago. Bizi-itxaropena betiereko, baina jaiotza-tasa urri. Lan kontratu duinak urri, laguntza sozialak urri, zaintzarako sareak urri, pentsioak urri. Alokairu zentzuzkoak urri. Gazteen emantzipaziorako bideak urri. Kontziliaziorako egiazko aukerak urri. Emakumeak urri erabakiguneetan. Kulturgileentzat heldulekuak urri. Ikerlariantzat etorkizunerako promesak urri. Kanpotik datozenentzat aterpeak, paperak eta errespetua urri –azal eta begi eta ile kolorearen arabera, betiere–. Zahar goitizetan lekua urri; ospi-

taleetan ohe libreak urri. Medikuek urri; herriko osasun-etxean goiz osoan zehar jo eta jo ari den telefonoaren erantzungailu automatikoa sutan. Pazientzia urri; itxaron-zerrendak luze, amaigabe. Izenez behintzat publikoa izaten jarraitzen duen guztia urri.

Giza eskubideak urri. Adierazpen askatasuna urri. Justizia urri. Enpatia, elkartasuna, kolektibotasuna urri. Autokritika, kontzientzia, ardura hartzea urri. Teoriatik praktikarako jauziak urri. Alternatiba errealek urri –eta izan badirenak ikusezin–. Irudimena, sormena, ilusioa urri. Ausardia, indarra, ekiteko gogo urri. Barrea urri.

Lo-orduak urri. Sofan luze etzanda ezer egin gabe egoteko tarteak urri. Aisialdia, denbora libre urri. Sukalderako denbora urri. Sexurako denbora urri. Irakurtzeko denbora urri. Denbora urri. Gorputza urri. Arnasa urri.

“Gutxiren ongizateak elikatzen du auzintzen ondoeza”.

Jose Luis Otamendiren *Landura* liburuan arkatzez azpimarratu nuen duela gutxi, eta esaldia nirekin daramat orduz geroztik. Akabo oparotasun garaiak. Orain oinarritzkoa urri, eta premiazkora urre. ●

Turismo mentala



EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLE ETA
IRAKASLEA

Parke tematiko berezi bat izanen litzateke, da. Edo esperientzia jasagarri esklusibo bat, bakarrik nahiz lagunduta gozatzeko. Alde horretatik, turismo fisikoak bat egingen luke, du, turismo mentalarekin. Horra, akaso, enpresa ezagun baten formula berria. Totala.

Bakarren batek teknologia berrien puntako garapenean pentsatu badu, ez dabil zuzen: giza ingeniartzak ez du halako artifizioen beharrik. Hain zuzen ere, kontrako norabidean joanen litzateke, da, proposamen berritzailea. Zertarako eskaini eguneroko teknologizatuak errukigabe ezartzen digun hori? Ihes egitea da, betiere, denok gehien bilatzen

duguna. Baita zama bihurtu den teknologiatik ere.

Paradoxa berria izanen litzateke, da, dispositibo gehien biltzen dituen mundu aurreratuak iragan denbora bateko mundua imitatzea, Internetik gabe. Pantailaz gabetutako aisialdi osasungarria eskainiko luke, du, turismo mentalak: inguru fisikoen katalogo oso bat, teknologia digitalaren interferentziarik gabe, bakoitza gogoarekin nahi duen lekura joateko. Edo bertan lasai ederrean egoteko.

Oztopo bakarra izanen luke, du, teknologiarik gabeko teknologiak: hasieran, errenta handiagoen esku bakarrik egotea. ●